

Gaztañadui 29 helbideko udal lokalaren alokairua arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria

LEHENENGOA: HELBURUA.

Egin gura den kontratuaren helburua ondoren deskribatzen den udal lokala alokatzea da:

GAZTAÑADUI 27 ETXABEKO 2. MERKATARITZA-LOKALA. 152,49 m²-ko azalera du, eta honako mugak: iparraldean, landarezko plataforma horizontalaren eta Deba ibaiaren harri-lubetaren ondoko oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bidea; hegoaldean eta ekialdean, Gaztañadui kalerako oinezkoentzako bidea; eta mendebaldean, 1. lokala zeramika labea dagoena. Barrualdetik, berriz, hegoaldetik, ekialdetik eta mendebaldetik, eskapeko gune komuna, eskailerak eta 29. eskapeko kontagailu gela.

Alokagai dagoen lokala baldintza agiri honen eranskin gisa doan planoan kotatu eta identifikatzen da, eta biak batera kontratuaren zati banaezina osatzen dute.

Lokala banatzeko proposamenak onartuko dira, eta baita horiengatik lehiatzea ere, betiere, proposatutako banaketak Eskoriatzan indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioetako hiri lurretan eta lurzoru urbanizagarrietan aplikagarri diren ordenantza erregulatuak hiru hirugarren izenburuko 2. atalburuko "Baimenduriko beste erabilera batzuk helburu dituzten Behe-Oineko lokalei aplikatu beharreko baldintzak" izeneko 3.13 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baldin baditu, eta hala badagokio, arlo horretan aplikagarri den araudia.

Horrela, esleipenaren ondorioetarako, alokairua ondoren adieraziko diren lotetan banatzen da, eta eskaintza egin ahal izango da lote batengatik, hainbatengatik edo guztiengatik.

1. LOTEA: 1. lokala

2. LOTEA: 1. lokalaren zati bat.

Lokalaren zati bat alokatzeko baldintzak:

- Ez egotea lokal osoa alokatzeko onartutako lehiatzailerik.

- Udalak, eta lokalaren zatietako bakoitza hobeto aprobetxatzeko helburuarekin, alokagai jarriko den behin betiko azalera finkatzeko eskubidea gordetzen du beretzat. Azalera hori ez da zertan izan behar lehiatzaileak proposatutakoa, besteren bat izan daiteke.
- Lokala banatu ondoren zati bakoitzak izan beharreko gutxieneko azalera 25 m² izango da, eta alokatzeko zatiaren gehienezkoa, baimendutako erabileren eranskinean adierazitakoa.
- Esleipendunak bere kontura eta kargura egin beharko ditu lokala banatzeko obrak Udalak emandako jarraibideen arabera.

BIGARRENA: ALOKAGAI DAGOEN LOKALAREN ERABILERA.

Indarrean dauden hirigintza arauak baimendutako edozein erabilera eman ahal izango dio esleipendunak lokalari. Horretarako, gehienez ere BI HILABETEKO epea izango du alokairu kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

Lokala obrarik eta akabera lanik egin gabe dagoenez, errentariaren kontura eta kargura izango da lokala egokitzea bertan egin nahi den jarduerara.

Lehenengo paragrafoan jasotako BI HILABETEKO epe hori luzatu ahal izango da, baina, soilik, epea luzatzeko beharra justifikatuta baldin badago, hau da, derrigorrezko obra lizentzia eskatuta, egin beharreko obrak direla-eta epe handiagoa jartzen baldin bada emakida erabakian.

Baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

BAIMENDUTAKO ERABILERAK: eranskinean aipatzen dira.

HIRUGARRENA: ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA.

Kontratu hau tramitazio arruntez egingo da, prozedura ireki bidez.

Lehiaketarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Kontratazio organoak berak egoki irizitako komunikabideetan iragarri ahal izango du lehiaketa, baina, soilik, informazio modura.

Kontratua eskaintza onena egiten duen lehiatzaileari esleituko zaio.

LAUGARRENA: KONTRATAZIO ORGANOA.

Kontratuaren iraunaldia kontuan izanik, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Udalbatzarra izango da kontratazio egin eta espedientea izapidetzeko organo eskuduna.

BOSGARRENA: LEHIAKETAREN OINARRIZKO ERRENTA EDO LEHIAKETA-TIPOA.

Lehiaketa tipo bezala jarritako errenta ondorengo da:

60,42 euro m²-ko eta urteko.

Errentan ez dago sartuta BEZa eta ezta bestelako zergarik edo kontratuari aplikatu daitezkeen gasturik ere.

Lehiaketa-tipoa gorantz hobetu ahal izango da.

Kontratuaren indarraldiko urte bakoitza betetzen denean eguneratuko da errenta, eta horretarako, aurreko urteko errentari eguneratze bakoitzaren aurreko hamabi hilabeteetan KPIak izandako aldaketa aplikatuko zaio. Lehenengo eguneraketa egiteko erreferentziazko hilabetea argitaratutako azken indizeari dagokiona izango da.

SEIGARRENA: IRAUPENA.

Kontratu honek 10 urteko iraupena du. Hala ere, kontratua berariaz eta alde biak ados jarrita (gutxienez bi hilabete lehenago) luzatu ahal izango da BOST URTEKO beste bi alditan, kontratuaren iraupena guztira HOGEI URTE baino gehiago ezingo delarik izan.

Epe hori kontratua formalizatzen den egunetik hasiko da kontatzen.

Esleipendunak horrela eskatuz gero, kontratua urtero luzatu ahal izango da. Luzapenaldiak ezingo du inolaz ere hasierako epearen erdia gainditu.

ZAZPIGARRENA: ERRENTA ORDAINITZEKO EGUNA.

Errenta hileroko eta modu aurreratuan ordaindu beharko da hil bakoitzeko lehen zazpi egunen barruan.

Errentaria behartuta dago kontu korrante edo banku-libreta bat izatera ordainketa-helbide bezala, hileko kuotak bertatik kobratzeko. Kontu edo libreta zenbakia jakinarazi beharko dio alokatzaileari.

ZORTZIGARRENA: LEHIATZAILEEN GAITASUNA.

Prozeduran parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa izanik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan jasotako kontratuak egiteko debeku egoeraren batean ez dauden pertsona fisiko eta juridikoek. Horretarako, baldintza agiri honetan zehaztutako proposamen ereduaren araberrako eskaintza aurkeztu beharko dute.

BEDERATZIGARRENA: BEHIN-BEHINEKO BERMEA.

Eskaintzak aurkezteko interesa dutenek 100 euroko behin-behineko bermea jarri beharko dute. Berme hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen Testu Bategineko 96. artikuluan ezarritako moduren batean jarri beharko da.

HAMARGARRENA: PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIA.

A. Proposamenak isilpekoak eta baldintza agiri honetako ereduaren araberrakoak izan beharko dira. Euskaraz edo gazteleraz idatzi beharko dira, inolako zuzenketa edo ezabaketarik gabe, eta proposamena aurkeztutakoan, lehiatzaileak baldintza agiri honetako agindu guztiak onartzen ditu inolako baldintzarik gabe. Proposamenak aurkezten dituenak sinatuta egon beharko dira.

Proposamenak Udal erregistroan aurkeztu beharko dira, bulego orduetan, HAMABOST EGUN NATURALEKO epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, eta epe hori, azken egun naturaleko 14:30ean amaituko da. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da.

Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira. Kasu horretan, lehiatzaileak posta etxean bidalketa egin duela justifikatu beharko du, eta kontratazio organoari eskaintza bidali duela jakinarazi beharko dio faxez edo telegramez bidalketa egiten duen egunean bertan. Egun hori eskaintzak aurkezteko azken eguna baldin bada, 14:30ak baino lehen jakinaraziko beharko du. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, ez dira onartuko epea amaitu eta gero kontratazio mahaietan jasotako eskaintzak. Mahaiak jakinarazpena jasotzen duen egunetik 10 egun natural igarota proposamenik jaso gabe, ez da onartuko proposamena, eta kontratazio mahaiak epe barruan aurkeztutako gutun-azalak ireki ahal izango ditu.

B. Proposamenak itxitako gutun-azalean aurkeztu beharko dira, eta bertan honako testua jarriko da: ESKORIATZAKO UDALAREN JABETZAKO HIGIEZINA ALOKATZEKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA.

Gutun-azal handi horren barruan itxitako bi gutun-azal sartu beharko dira: "A" , "B" eta "C", eta horiek ere aurreko atalean esandako testua izan beharko dute, baina, aurrerago adieraziko diren azpiztituluekin. Gutun-azal bakoitzaren barruan, aparteko orri batean, zenbaki bidez zerrendatuko da gutun-azalaren edukia, baldintza agiri honetako baldintzen hurrenkerari jarraituz.

- "A" gutun-azalak honako azpiztitulua izango du: "KONTRATISTAREN NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK ETA JARRITAKO BERMEA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ", eta bertan, ondoren adieraziko diren dokumentuak edo horien kopia askietsiak jasoko dira:

a) Nortasun Agiria, edo horren fotokopia konpultsatua.

b) Beste pertsona baten ordezkari bada, Nortasun Agiria, eta pertsona horrek emandako ahalaren eskritura askietsia eta legeztatua.

c) Pertsona juridikoa baldin bada, Merkataritza Erregistroan inskribatutako merkataritza sozietatearen eratze eskritura eta identifikazio fiskalerako zenbakia, izaera horretako sozietatea denean lehiatzailea. Pertsona juridikoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea eskatzerik ez badago, jarduteko gaitasuna frogatzeko eraketaren, aldaketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da, eta bertan jaso beharko dira bere jardura arautzen duten arauak.

d) Baldintza agiri honetako 9. baldintzan ezarritako behin betiko bermea Eskoriatzako Udalaren alde bertako diru bilketa bulegoan jarri izanaren frogagiria aurkeztea. Berme hori 100 eurokoa da.

e) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Bertan jasoko da ere egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, esleipendun izango den enpresariak edo pertsona fisikoak eskakizun hori esleipenaren aurretik egiaztatu behar diren kaltetan gabe.

f) Lehiatzailearen edo kontratazio honetarako bere ordezkariaren helbidea, telefonoa eta faxa.

g) Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan, alokatzea gura den lokalean martxan jarri gura duen jarduerari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Egiaztagiria aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan, zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez duela adierazteko erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

Lehiatzailea oraindik Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta emanda ez badago, 15-4 baldintzan zehaztutako epean alta emateko konpromisoa hartzea esleipendun izatea proposatuz gero.

h) Sustatzaileak inbertsioari aurre egiteko kaudimen ekonomikoa duela egiaztatzeko finantza erakundeek egindako txostena.

- "B" gutun-azalak "BALIO-JUDIZIOAREN MENPEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK" azpтитulua izango du, eta balio-judizioaren menpeko balorazio irizpideei buruz baldintza-agiri honetako 12. baldintzan aipatutako dokumentu hauek jasoko ditu:

1.- Higiezina egokitzeko edo berritzeko obren proiektua

2.- Egin gura den jardueraren txostena edo proiektua.

- "C" gutun-azalak "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK" azpтитulua izango du, eta ondorengo dokumentu hauek izan beharko ditu:

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA, ondorengo ereduaren arabera idatzita egon beharko da:

Izen-abizenak:

NAN:

Jakinarazpenetarako helbidea:

Adinez nagusi naizen honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (zenbakia: , eguna:.....) iragarritako LEHIAKETA deialdiaren berri izan dut, eta ondasun higiezina alokatzeko lehiaketan parte hartzea eskatzen dut. Horretarako, honako hau

AGERTZEN DUT

1.- Kontratua esleitzeko oinarrien agirian eskatzen diren baldintza bakoitza eta guztiak betetzen ditudala, baita, gizarte, lan eta fiskalitate betebeharrak ere.

2.- Baldintza agiriko baldintza guztiak osorik onartzen ditudala eta baita, kontratuaren esleipendun izango banintz, kontratutik erator daitezkeen beste betebeharrak ere.

3.- loteko higiezina errentan hartzera konprometitzen naizela, horretarako, euro gehi dagozkion zergak ordainduz. (2. lotearen kasurako, m²-ko azalera alokatzeko konpromisoa hartzen dudala).

4.- Proposamen ekonomikoarekin batera ondorengo agiriak aurkezten ditudala:

Lokalean egin beharreko jarduerarekin zenbat lanpostu berri sortzera konprometitzen naizen.

Lekua, eguna eta sinadura

2.- Lokalean egin beharreko jarduerarekin zenbat lanpostu berri sortzera konpromisoa.

HAMAIKAGARRENA: BALDINTZA AGIRIA IKUSTEA.

Baldintza agiria Eskoriatzako Udaletxean egongo da ikusi nahi duenarentzako, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Kopia atera ahal izango dira.

Baldintza agiria eta lehiaketa iragarkia Eskoriatzako Udaleko kontratatzailearen profilean ere ikus daitezke, ondorengo helbidean: www.eskoriatza.net

HAMABIGARRENA: ESLEIPEN IRIZPIDEAK.

Lokal osoa alokatzeko aurkeztutako eskaintzek lehentasuna izango dute lokalaren zati bat alokatzeko aurkeztutakoen aurrean. Horrela, lokalaren zati bat alokatzeko aurkeztutako eta onartutako eskaintzak lokal osoa alokatzeko eskaintzarik ez balego baloratuko dira bakarrik.

1.- Eskaintako kanona: 45 puntu

Puntuazioa proportzionalki egingo da hiruko erregela sinplea aplikatuz, puntuazio altuena eskaintza ekonomiko onenari emanda.

2.- Higiezina egokitzeko edo berritzeko obrak: 35 puntu

Inbertsioa nolakoa eta zenbatekoa izango den egiaztatzeko, txosten bat aurkeztu beharko da derrigorrez, eta bertan, honako hauek deskribatu beharko dira behar besteko xehetasunez: egin beharreko lanak, inbertsioaren aurrekontua, egin beharreko lanen planoak eta jarriko den jarduera. Dokumentu horiekin batera, derrigorrez erantsi beharko da sustatzaileak inbertsioari aurre egiteko kaudimen ekonomikoa duela egiaztatzeko finantza erakundeek egindako txostena, eta inbertsio hori egiteko konpromisoa kontratuaren esleipendun izateko proposatuz gero.

3.- Egin gura den jardueraren txostena edo proiektua: 15 puntu

Kontuan hartuko da lokalean egin gura den jarduera herrian berria izatea, eta horren izaera soziala, kulturala edo antzerakoa.

4.- Langabezian dauden eta lanaldi partzialeko kontratuarekin enpresa batean lanean ari direnen (betiere, lanaldia konparagarri den lanaldi osoko langile baten lanaldiaren herena baino txikiagoa baldin bada) enpresa ekimena sustatze aldera, 5 puntu emango dira lehiatzailea, pertsona fisikoa izanik, langabezian baldin badago eta bertan jardueraren bat egiteko alokatzen badu lokala; edo, pertsona juridikoa izanik, lanpostu berriren bat sortzen badu bertan egingo duen jarduerarekin. Horretarako, enplegu bulegoetan langabe moduan izena emanda dagoela egiaztatu beharko du, edo, pertsona juridikoa bada, herriko langabetu bat kontratatzeko konpromisoa hartu (azken kasu horretan, kontratazioa egiteko konpromisoaren baldintzak zehaztu beharko ditu: modalitatea, lanaldia, iraupena...).

Pareko bi proposamen izanez gero, lehentasuna emango zaio eskaintza ekonomiko onena egin duenari.

HAMAHIRUGARRENA: KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio mahaia honela osatuta egongo da:

- Batzordeburu: Beñat Herce, alkatea
 - Mahaikideak: Juan Luis Merino, zinegotzia.
Arantza Iregui, zinegotzia
Maria Pia Urrutia, udal arkitekto teknikoa
Edurne Iturbe, idazkari-kontuhartzailea

- Idazkaria: Udal idazkaria, Edurne Iturbe.

HAMALAU GARRENA: DOKUMENTAZIO OROKORRA KALIFIKATZEA.

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaiak denboraz eta formaz zuzen aurkeztutako A gutun-azalak ireki eta bertako dokumentu orokorrak kalifikatuko ditu. Aurkeztutako dokumentazioan konpondu daitezkeen akatsak daudela edo dokumentuak falta direla antzemango balu, interesatuei jakinaraziko die ahoz. Aurrez esandakoaren kaltetan gabe, aipatutako gorabeherak interesatuei jakinarazi beharko zaizkie, eta BOST LANEGUNEKO epea eman lehiatzaileek akats horiek zuzendu edo konpondu ditzaten kontratazio mahaiaren aurrean.

2.- Dokumentazioak zuzendu ezinako akatsik edo hutsune materialik balu, ez da proposamena onartuko.

HAMABOS GARRENA: PROPOSAMEN IREKITZEA ETA ESLEIPENA

1.- Mahaiak, behin aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eta hala badagokio, ikusitako akatsak edo ez-egiteak konpondu ondoren, hautapen-irizpideekin bat egiten duten eskaintzak zeintzuk diren erabakiko du, eta berariaz adieraziko du zeintzuk diren lehiaketarako onartutakoak, zeintzuk baztertutakoak eta bazterketaren arrazoiak.

2.- "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizioaren menpeko irizpideak dituen, jendaurrean irekitzeko ekitaldia kontratugilearen eskakizunetan ezarritako egun eta orduan egingo da. Eguna eta ordua ekitaldia baino gutxienez 3 egun baliodun lehenago jarri beharko dira kontratugilearen eskakizunetan. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezko balitz, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko, SPKLa zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.- "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azaletako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, "C" gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldia egingo da kontratatzailearen profileen ezarritako egunean eta orduan. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak gehienez ere sei laneguneko epea emango du horiek zuzentzeko.

Ekitaldi horretan jakinaraziko da eskaintza bakoitzean balio-judizioaren menpeko irizpideei emandako balorazioa.

4.- ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposizioak onenetik txarrenera sailkatuko ditu Mahaiak eta kontratua esleitzeko proposamena egingo dio esleipena egin behar duen kontratazio organoari.

SPKLTBren 152. artikuluan aurreikusten denez, balio anormal edo neurritz gainerakoren bat edo gehiago antzemandakoan, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jo aurretik eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da.

Kasu horretan, lehiatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio esleipena, betiere, lehiaketako helburua Administrazioak nahi bezala egiteko gaitasuna duela jotzen bada.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezingo dela burutu balore anormalak edo neurritz gainezkoak sartu direlako, sailkapenetik baztertuko du eta sailkapen hurrenkeraren arabera proposamen ekonomiko onena egin duenaren aldeko esleipena erabakiko du.

Egindako guztia espedientean jasoko da, derrigorrez egin beharreko dagozkion aktetan.

5.- LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO

Aurrez adierazitako jarduerak egin ondoren, Alkateak, kontratazio organoak eskuordetuta, errekerimendua egingo dio lehenengo sailkatuari, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar laneguneko epean honako hauek egin ditzan:

- a) Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea ziurtagiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu baldin badira.
- b) Lehiaketako iragarki guztiak ordaintzea.

Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lehiatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lehiatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

6. ESLEIPENA

Esleipena bi hilabeteko epean egingo da gutun-azalak zabaltzen diren biharamunetik kontatzen hasita, eta lehiatzaileei esleipenaren berri eman beharko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Kontratazio Mahaiak proposatutako esleipendunari esleipenik ez egitea bidezkoa denean, bete beharreko baldintzak betetzen ez dituelako, Administrazioak, deialdi berri bat egin baino lehen, beste esleipen bat egin ahal izango dio zerrendako bigarren lehiatzaileari edo ondorengoei, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran; beti ere, horrela egiterik balego eta esleipendun berriak bere oniritzia emango balu. Horrela balitz, hamar laneguneko epea emango zaio 4. atalean aipatutako eginbeharrak bete ahal izateko.

Esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- 1.- Esleipen kopuruaren % 5eko bermea jartzea (BEZ gabe).

Berme hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 112. artikuluan ezarritako edozein eratan jarri ahal izango da.

Bermea kontratuak irauten duen denbora osoan mantenduko da.

2.- Proposamenarekin batera ez bada aurkeztu, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean, alta emanda egotearen egiaztatzea. Egiaztatzea aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan, zerga horri dagokion matrikulan baja emanda ez egotea egiaztatzen duen aitorpena aurkeztu beharko da.

3.- Zerbitzua eman behar duen pertsona esleipenduna bera ez denean, eta herriko langabetu bat kontratatzeke konpromisoa hartu badu, sinatutako lan kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

HAMASEIGARRENA: GASTUAK.

Errentariaren kontura izango dira espedientearekin lotutako gastu guztiak, hala nola, iragarkiak, dagozkion zergak, eta, hala eginez gero, kontratua eskritura publikoan formalizatzeko gastuak.

HAMAZAZPIGARRENA: ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu aurretik, 15. baldintzan esandako behin betiko bermea jarri beharko du. Berme hori hamar lanegunen barruan jarri beharko du esleipen jakinarazpena egiten den egunetik kontatzen hasita. Dokumentu administratiboa behar besteko agiria izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko.

Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

Kontratistari egotzi daitezkeen arrazoiengatik kontratua ezin bada formalizatu aipatutako epean (10 lanegun), Administrazioak kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, eta, bermea jarri izan balitz, baita behin-behineko bermea konfiskatzea ere.

HEMEZORTZIGARRENA: ERRENTARIAREN BETEBEHARRAK.

Errentaria derrigortuta dago bere eskaintzan adierazitako erabilerarako bakarrik erabiltzera lokala, eta ez beste edozeinetarako.

Beraz, ezingo du inori laga, beste bati alokatu edo azpierrean eman ez osorik ez zatiren bat.

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira lokala adierazitako erabilerarako ez erabiltzea bigarren baldintzan adierazitako epean eta adierazitako jarduerarik ez egitea 6 HILABETEAN edo gehiagoan.

Kontratuan ezarritako denbora osoa betekoa duela hitzematzen du errentariak, epea amaitu baino lehen kontratuari uko egiten badiu, betetzeko gelditzen zaion kontratuko urte bakoitzeko indarrean dagoen errentaren hilabete bat ordaindu beharko dio alokatzaileari kalte-ordain bezala. Urtebete baino gutxiagoko denborarako, kalte-ordainaren zati proportzionala ordaindu beharko da.

Kontratua amaitutakoan lokala itzuliko duela hitzematzen du errentariak, eta bere kontura izango dira erabilera okerrarengatik, ez-egiteagatik edo axolagabekeriagatik, ondasun higiezinaren berak edo beren menpeko pertsonen sortutako kalteak konpontzeko egin beharreko konponketak, eta baita ondasun higiezinaren erabilera normalagatik sortutako higadurarengatik egin beharrekoak ere.

Errentariaren kontura izango dira gasa, argindarra, telefonoa eta kontagailu bidez bereizi daitezkeen beste edozein. Horiek berak kontratatu beharko die bere kontura enpresa hornitzaileei, eta bere kontura izango dira ere dagozkion kontagailuak eskuratzea edo konpontzea eta horien kontserbazio eta konponketa gastuak; eta, hala badagokio, baita horietan egin beharreko aldaketak ere legeak edo administrazioak horrela ezarri edo aginduz gero.

Errentariak hitzematzen du higiezinera sartzen utziko diola jabeari edo azken horrek izendatutako pertsona edota profesionali higiezina eta bere elementuak ikuskatu eta bere egoera ikusteko, eta baita edozein obra edo konponketa egiteko ere, horrelakorik egitea beharrezkoa balitz.

Alokatzaileak aurrez eta idatziz baimenik eman ezean, debekatutako dago instalazioetan obrak edo aldaketarik egitea.

Errentariak derrigorrezko lizentziak eta baimenak lortu beharko ditu egin beharreko jarduera hasi aurretik.

Higiezinaren erabilerarengatik hirugarrenei zuzenean edo zeharka eragindako kalte fisiko zein materialen erantzule bakarra errentaria izango da, eta jabeak ez du inolako erantzukizunik izango.

Errentariak berariaz eta formalki uko egiten die 29/1994 Hiri Errentamenduen Legeak ematen dizkion onura eta eskubide bereziei.

Indarrean dagoen Hiri Errentamenduen Legeko 14. artikulua ondo etarako eta bidezkoak izan daitezkeen guztietarako, alde bietan hitzartzen dute higiezinaren besterentzeak errentamendua amaituko duela.

HEMERETZIGARRENA: ALOKATZAILEAREN BETEBEHARRAK.

Alokairuan sartutako guztia, instalazioak eta zerbitzuak, eman behar zaion erabilerarako erabiltzeko egoera onean, eta bertara sartzeko eta erabiltzeko moduan itzuliko duela hitzematzen du alokatzaileak.

Alokatzaileak beharrezko konponketa guztiak egin beharko ditu higiezina hitzartutako erabilerarako erabilgarri egon dadin, konpondu beharreko kaltea errentariari egotzi dakionean salbu, Kode Zibileko 1563. eta 1564. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Konponketa horiengatik ez du errenta igotzeko eskubiderik izango.

HOGEGARRENA: KONTRATUAREN IZAERA ETA JURISDIKZIOA.

Baldintza agiri honek arautzen duen kontratuak izaera juridiko-pribatua du, eta ondareari buruzko legeriak arautuko du.

Jurisdikzio Zibileko organoei dagokie aldean artean sor daitezkeen auzigaien berri izatea. Hala ere, egintza juridiko bereizgarritzat joko dira kontratuaren prestaketarekin eta esleipenarekin lotutako epaiak, eta ondorioz, Administrazioarekiko auzi juridikzioan inpugnatu ahal izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen araudiaren arabera, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 legeko 110.3. artikuluan ezartzen den bezala.

Kontratuaren eraginak eta amaiera zuzenbide pribatuko arauen bidez arautuko dira.

Baimendutako erabilerak:

➤ Hirugarren sektorekoak.

Honako aldaera hauetan: bulegoak, 1. eta 2. kategoriako merkataritza, hirugarren sektoreko erabilera anitzak eta osasun zein sorospen arlokoak.

Erabilera horietarako baimena, kasuan kasu, egoitza erabilerarekin bateragarria izatera baldintzatuta egongo da.

- Bulego-erabileraren barruan, titulartasun pribatua duten administrazio-jarduerak sarturik daude, besteak beste, mota guztietako enpresen administrazio-egoitzak eta delegazioak; banketxeen, burtsaren eta aseguru-etxeen bulegoak; langela eta bulego profesionalak; aipaturikoekin bateragarri eta atxikigarriak diren kalkulu-zentroak eta laborategiak; horien antzeko beste batzuk, eta horiei dagozkien erabilera lagungarriak.

- 1. eta 2. kategoriako merkataritza erabilerak.

Merkataritza-erabileren barruan egongo diren jarduerak hauek dira: jendaurrean mota guztietako salerosgaiak eta produktuak saltzea, handizka nahiz xeheka; jendaurreko zerbitzuak ematen dituztenak (ile-apaindegiak, edertasun-aretoak, tindategiak eta antzeko beste batzuk) eta horiei dagozkion erabilera lagungarriak.

1. kategoria:

25 m²-ra bitarteko azalera erabilgarria duen saltoki txikia, behin-behineko eraikuntzetan, espazio publikoen erabilerarekin bateragarria (esaterako: espaloiak, lorategiak, oinezkoentzako lekuak, e.a.); beraz, horien ezarpena bertan baimendu ahal izango da, administrazioko emate-erregimenpean, plangintzan berariaz aurreikusita ez egon arren; halaber, horretarako baimenduko diren espazio pribatuetan ere posible izango da horiek finkatzea.

2. kategoria:

25 m²-tik 250 m²-ra bitarteko azalera erabilgarria okupatzen duten merkataritza-jarduerak; egoitza-, industria-, hirugarren sektoreko eta ekipamendu komunitarioarako erabilerarekin bateragarriak eta eskakizun berezirik gabeko lekuetan helburu nagusi hori bera duten lurzatietan finkagarriak.

- Hirugarren sektoreko erabilera anitz.

Hirugarren sektoreko hainbat erabileren barruan titulartasun pribatuko jarduera hauek sarturik daude: jarduera sozio-politikoak; kultur jarduerak; irakaskuntza eta antzeko beste batzuk, baldin eta herritar multzoari zerbitzu bat eskaintzeko helbururik ez izateagatik edota beren diru-irabazizko helburu espezifikoengatik ekipamendu komunitarioaren barruan sailkatuta ez badaude; alderdi politikoen egoitzak; elkarteak edo sindikatuak; erakusketa-areto pribatuak; akademia pribatuak eta beste batzuk.

- Osasun eta sorospen erabilera:

Gaixoak tratatu eta hartzea eta beste antzeko erabilerak dituzten osasun eta sorospen erabilerak, batez ere irabaziak lortzeko asmoz aurrera eramaten direnean, merkataritza-erabileraren edo hirugarren sektoreko erabileraren barruan baleude bezala kontsideratuko dira; horien artean, besteak beste, hauek daude: ospitaleak, klinikak eta geriatrikoak, eta sendagileen eta albaitarien kontsultategiak.

Erabilera horietarako baimena, kasuan kasu, egoitza erabilerarekin bateragarria izatera baldintzatuta egongo da.

➤ Industria.

1. kategoriakoa: Etxebizitzari atxikitako erabilera gisa onartuko da.

Pliego de cláusulas administrativas particulares que regirán el arrendamiento del local municipal sito en Gaztañadui 29

PRIMERA. OBJETO

El contrato que se pretende tiene por objeto el arrendamiento del local municipal cuya descripción es la que sigue:

LOCAL COMERCIAL NUMERO DOS EN LA PLANTA BAJA DE GAZTAÑADUI 27. Tiene una superficie de 152,49 m2. Linda Norte, viario de coexistencia peatonal-rodado junto a plataforma horizontal vegetal y escollera del río Deba, Sur y Este, viario peatonal a calle Gaztañadui; y Oeste, local número uno destinado a la ubicación del horno de alfarería. Interiores linda Sur, Este y Oeste, con zona común de portal, escaleras y cuarto de contadores del portal número 29.

El local objeto de arrendamiento se acota e identifica en el plano que como anexo se incorpora al presente pliego de condiciones, con el que formará parte inseparable del contrato.

Se permitirán propuestas de división de dicho local, y licitar por parte, siempre y cuando el resultado de la división propuesta cumpla los requisitos establecidos en el art. 3.13.: "Condiciones aplicables a los locales de planta baja destinados a otros usos de los locales", de la Sección tercera capítulo II de las ordenanzas reguladoras aplicables en los suelos urbano y urbanizable de las NNSS de Planeamiento vigente en el municipio y en su caso, la normativa sectorial aplicable.

Así, a efectos de la adjudicación, el arrendamiento se divide en los lotes que a continuación se indican, siendo posible presentar oferta por uno, varios o todos los lotes:

LOTE 1: Local 1

LOTE 2: Parte del local 1.

Requisitos para el arrendamiento de una parte de local:

- Que no haya licitador admitido para la totalidad del local.
- El ayuntamiento se reserva el derecho de fijar la superficie definitiva objeto de arrendamiento, que podrá ser distinta a la propuesta por el licitador, al objeto de optimizar el aprovechamiento de cada una de las partes del local.
- La superficie mínima resultante de la división para cada una de las partes será como mínimo de 25 m² y la máxima de la parte a arrendar la indicada en el anexo de usos permitidos.
- El adjudicatario vendrá obligado a realizar a su cuenta y cargo las obras de distribución de local según las indicaciones del ayuntamiento.

SEGUNDA. DESTINO DEL LOCAL OBJETO DE ARRENDAMIENTO

El local será destinado por el adquirente adjudicatario a cualquiera de los usos permitidos por la normativa urbanística vigente, dentro del plazo máximo de DOS MESES a contar desde la fecha de formalización del contrato de arrendamiento.

Dado que el local se encuentra en "bruto", sin acabados, en su estado actual, será por cuenta y cargo del arrendatario la adaptación de mismo a la actividad que se pretende desarrollar.

